


# MOMIA BAT

Grigor gelan sartu zenean, haren bihotzak jauzi egin zuen. Momia bat, alajaina! Burutik oinetaraino bendaz bilduriko momia bat ohean etzanik.

-Hauxe duzu gela -esan zion erizainak-. Zure lagunak Jazinto izena du. Apaiza da. Kanpai bat koipez igurzten ari zela, kanpandorretik behera erori zen –eta momiari hitz egin zion hurrena-. Lagun berri bat ekarri diot, don Jazinto!

-Edefki, edefki! Nofaitekin hif egingo dut beinfat –esan zuen benda artetik, ahots lodi batek.



-Berorrek bai, baina honek ez. Mutua da –argitu zion erizainak.

-Edefki gaude! Ni elbafi eta hofi mutu.

Grigori beldurra ematen zion momia hark bere hizketa arraroarekin. “Hori aldamean dudala egin behar ote dut lo? Ez dut begirik itxiko gau osoan. Ilunpean hor egingo dela pentsatze hutsak oilo-azala jartzen dit”.

Bazkaldu ondoren, mutikoa berehala irten zen gelatik, erlea alboan zuela eta koa-dernoa eskuan. Gela hartan ezinegona sortzen zitzaion.

Pasabidean zegoela, 113. gelako atea ireki zen; nor irtengo, eta arestiko neskatala txirikordaduna. Aurrez aurre ikusi zion aurpegia; eta begirada hura, batez ere begirada hura, aurpegi osoa hartzen zion begirada leuna.

Neskatilak ere ikusi zuen Grigor, eta hurbildu egin zitzaion. Mutikoari bihotza urtu zitzaion ahoraino, eta malbabisko zaporea izan zuen berriro mingainean.

-Kaixo! Ainhoa naiz. Eta zu?

“Grigor”, idatzi zuen bizkor mutikoak bere koadernoan, “orain mutu nago, sendatu arte”.

Bakoitzak bere berri eman zion besteari; Grigorek, idatziz, noski. Ainhoak bere alde-tik kontatu zionez, koskor bat atera zitzaion bizkarrean, eta zer ote zen aztertzen ari omen ziren; gelan bakarrik zegoen eta zeharo aspertzen zen.

Pasabideetan zehar ibili ziren, eta Gri-gorek sakelan gordeta zeraman erlea erakutsi zion Ainhoari. Berehala egin zen Ainhoa ere erlearen adiskide.



Halako batean, Grigorek hauxe idatzi zion Ainhoari: “Momia baten aldamenean jarri naute gelan. Beldurra ematen dit han lo egiteak. Ez dakit zer egin”.

-Ni neu ere ez nago oso gustura –esan zuen Ainhoak- gela handi hartan, bakar-ba-karrik. Beldur pittin bat ere ematen dit, ez pentsa.

*Denboraldi bat ospitalean*  
JUAN KRUIZ IGERABIDE

### 1. Non gertatzen da istorioa?

- A. Museoan
- B. Kalean
- C. Ospitalean
- D. Elizan

### 2. Non zegoen momia?

- A. Egiptoko piramidean
- B. Museoan, sarkofago batean
- C. Ospitaleko kirofanoan
- D. Gelan, aldameneko ohean

**3. Azaldu zer den momia bat.**

.....

.....

.....

**4. Zergatik hitz egiten du horrela don Jazinto apaizak?**

- A. Erdi lotan dagoelako
- B. Mina duelako
- C. Hortzik ez duelako
- D. Xarabea hartu duelako

**5. Zer gertatu zitzaion momiari?**

- A. Aspaldian hilda zegoela
- B. Auto istripu handia izan zuela
- C. Momiaz moztuta zegoela
- D. Kanpandorretik behera erori zela

**6. Zergatik esan du don Jazintok "Edefki gaude! Ni elbafi eta hori mutu"? Zer esan nahi du?**

- A. Oso gustura daudela biak
- B. Ezingo direla elkarrekin paseatu
- C. Ikusi eta berehala lagun egin direla
- D. Biak oso gaizki daudelal

**7. Grigori gustatzen zitzaion ondoko oheko laguna ala ez? Arrazoitu zure erantzuna.**

.....

.....

.....

**8. Zergatik atera zen berehala Grigor gelatik?**

- A. Momiak beldurra ematen ziolako.
- B. Erizainak agindu ziolako.
- C. Neskatila ikusi nahi zuelako.
- D. Oso gosetuta zegoelako.

**9. Nolakoa da Ainhoa?**

- A. Txirikordaduna eta begi txikikoa.
- B. Ilegorria eta begirada leunekoa.
- C. Hankaluzea eta tuntun samarra.
- D. Txirikordaduna eta begirada leunekoa.

**10. Grigorek Ainhoa ikusi zuenean, zer gustatu zitzaion gehien?**

- A. Iлеко txirikordak.
- B. Neskaren gorpuzkera.
- C. Begirada leuna.
- D. Bere aurpegi osoa.

**11. Zergatik izan zuen Grigorek malbabisko zaporea mingainean?**

- A. Botikak hartu zituelako.
- B. Bazkaldu berria zegoelako.
- C. Ainhoa goxokia eman ziolako.
- D. Neska gustatzen zitzaiolako.

**12. Nola sentitzen dira Ainhoa eta Grigor? Zergatik?**

.....

.....

.....

**13. Nola komunikatzen da Grigor? Azaldu zergatik.**

.....

.....

.....

**14. Zenbatu gertaerak 1etik 5era irakurketan gertatu diren ordenaren arabera.**

- Erlea eta Ainhoa lagun egin dira.
- Grigorek idatzi du gelan lo egiteak beldurra ematen diola.
- Bazkaldu eta berehala atera da gelatik.
- Ainhoa hurbildu egin zaio.
- Grigor gelan sartu da eta momia ikusi du.

1 2 3 4 5